



EREDUA

Diru-laguntzen justifikazio-kontua berrikusteko txostenaren eredia

A (... diru-laguntzaren organo kudeatzailearen identifikazioa...)

1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez, diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren Erregelamendua onartu zen. Bada, erregelamendu horretako 59. artikuluan ezarritako helburuetarako, (... izendapena egin duen enpresa edo erakundea) erakundeak izendatu gaitu, (...adierazi diru-laguntza emateko ebazpena / egintza) –ren bidez (... diru-laguntzaren onuradunaren identifikazioa...) jaunari / andreari emandako diru-laguntzaren justifikazio-kontua berrikusteko.

Emandako diru-laguntza eurokoa da, eta jarduera hau egiteko erabili da: (... diruz lagundutako jardueraren / ekintzaren deskribapena).

Txosten honen eranskin gisa, honako hau doa: diru-laguntzaren justifikazio-kontuaren kopia bat; gure (nire) zigilua du kopia horrek, identifikazio gisa. (...diru-laguntzaren onuradunaren identifikazioa...) jauna / andrea da justifikazio-kontu hau prestatu eta aurkezteko erantzulea; gure (nire) erantzukizuna, berriz, honako hau da: txosten honetako 2. atalean adierazten den lana egitea.

2. Lan hau, izatez, ez da kontu-auditoria bat eta ez dago Kontu Auditoriei buruzko 19/1988 Legearen pean; beraz, ez dugu (dut) lege horretan ezarritakoaren arabeko auditoria-iritzirik ematen.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuarenaren(e)ko xxxx/2011 Foru Aginduaren bidez onartutako jardun-arauetan xedatutakoaren arabera egin da gure (nire) lana; izan ere, arau horietan ezartzen dira lan honetan aplikatu beharreko prozedurak eta haien nondik norakoak. Horrez gainera, kontuan hartu da honako arau hauetan xedatutakoa: (...adierazi diru-laguntza arautzen duen gainerako araudia: diru-laguntzei buruzko Foru Araua, foru araua garatzen duen erregelamendua, diru-laguntzei buruzko dekretua, hitzarmena...).

(...onuradunaren identifikazioa...) jaunak / andreak aurkeztutako diru-laguntzaren justifikazio-kontuaren berrikuspena egiteko, honako prozedura orokor eta espezifiko hauek kontuan hartuta egin dugu (dut):



(...atal honetan, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuarenaren(e)ko xxxx/2011 Foru Aginduaren bidez onartutako jardun-arauetako 3. artikuluan ezarritako prozedura guztiak aipatuko dira, egiaztatzeko ea egokia den onuradunak aurkeztu duen diru-laguntzaren justifikazio-kontua...).

3. Onuradunak gure (nire) esku jarri du eskatutako informazio guztia, gure (nire) lanak goian adierazitako helburua lor dezan.
4. Egindako lanaren ondorioz, honako hau jakinarazi behar dugu (dut): ez dugu (dut) egitaterik edo inguruabarririk ikusi aplikatu beharreko araudia ez betetzea edo 1. atalean adierazitako diru-laguntza jasotzeko (...diru-laguntzaren onuradunaren identifikazioa...) jaunari / andreari ezarritako baldintzak ez betetzea dakarrenik.

(Bestela, ikusi bada adierazi beharreko egitate garrantzitsuak badaudela, honako lerrokada hau jasoko da:)

Egindako lanaren ondorioz, honako egitate edo inguruabarren berri eman behar dizuegu (dizuet) aplikatu beharreko araudia ez betetzea edo 1. atalean adierazitako diru-laguntza jasotzeko (...diru-laguntzaren onuradunaren identifikazioa...) jaunari / andreari ezarritako baldintzak ez betetzea ekar baitezakete:

(...adierazi aplikatu beharreko araudia ez betetzea edo diru-laguntza jasotzeko ezarritako baldintzak ez betetzea ekar dezaketen egitateak...)

(...eragin ekonomikoa duten gorabeherak identifikatu eta kuantifikatu, justifikazio-kontuaren sarrera eta gastuen egoeran...)

Lekua eta data:

Auditorearen izena eta sinadura: